



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata 2009-10-10

VIIURTEA 1.797.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Kusmin handia piztu zuten atzo erreka lanek eta jendetza bildu zen hauen inguruan. ESTI EZEIZA



la amaituta daude eraberritze lan guztiak. IMANOL GARCIA

Urrats bat gehiago presa puzgarriaren lanetan

TOLOSA Atzo goizean hasi ziren presako goma jartzen; ur asko dagoenean hustu egingo da, sistema berezi bat du eta 2

Hilabete honen amaierarako prest izango dute Elorri pilotalekua

ALEGIA Egunotan zorua konpontzen ari dira; inaugurazio ofiziala azaroan egingo dute 3

TAO sistemaren aurka azaldu da ezker abertzalea

IBARRA «Irtenbidea bilatzen hasteko lehenik eta behin arazoaren jatorria bilatzea ezinbestekoa da» dio; hilaren 15ean hausnarketa bilera egingo dute 6

Musika-Kantu- Dantza Jaialdia antolatu dute biharko herriko plazan

LEITZA 20:00etatik aurrera dantzari, abesbatzeko kide, bertsolari, txistulari,... ariko dira jaialdian 7

AMAIA AGIRRE
BERTSOLARIA

«Bilbora gai naizela sentituz eta konfiantzaz iritsi nahi dut»

VILLABONA Biharko saioan ariko da Irazurekin batera; «ahal duena» erakutsiko du

JEXUX MARI IRAZU
BERTSOLARIA

«Helburua da bertso borobilak eta onak saio askotan egitea»

LARRAUL Laugarren aldiz hartuko du parte txapelketan eta faboritoen artean da 4-5

Gure baserritik, haragia zuzenean etxera

5 Kg-ko sorta 58€tan (banaketa DOAN)
Xerrak (hiru mota), haragi xehea, saiheskia, zankarra, gisatua, txuleta.

Proba ezazu, egin eskaria:

943-30 43 32 (ordutegia: 9:00-17:00) edo saski@lurlan.org
Dendak: Boulevard 7 eta San Martin merkatuko C4 postuan (Donostia)

Remiri Herri Omenaldia

GAUR, Urriak 10, 19:00etan, Villabonako Plazan



Eguneroko arazoak umorez erakutsita

TOLOSA ● Atzo hasi zen VI. Gorren Sentsibilizazio Astea. Haurrei zuzendutako emanaldi batekin ekin zieten jardueri. Bertan, Gaintzen elkarteko zenbait kidek, antzetzuz eta mimo bidez, beraiak egunerokoan dituzten arazoak erakutsi zizkieten. Baina, betiere, umorea erabiliz. Gaur, ekitaldiekin jarraituz, bi antzerki ikusteko aukera izango da Leidor antzokian. 17:30ean El grito taldekoen *Pequeños crimenes conyugales* ikusteko aukera izango da eta 19:00etan, Triscenioren *Un trozo de ti*. E. EZEIZA

K Kirol jarduera

Gaur, larunbata, Tolosan Aretto futbola

- Usabalgo beheko kantuan, 16:00etan, 1. go mailako, probintzialekoa: Tolargi-Zarautz.
- Nazionalen lehen mailako enparpada, Usabalgo goiko kantuan, 12:00etan, Laskorain-Santurtzi.

Saskibaloia

- Kadete mutilen partida, Usabalgo goiko kantuan 12:00etan. Take Tovar -Internacional.
- Usabalgo goiko kantuan, senior mutilak. 18:00etan hasita, Bide Bide Ibizia-Seky.

Eskubaloia

- Jubenilek 12:00etan jokatuko dute partida Usabalgo beheko kantuan. Tolosa-OET.
- Kadeteen partida 16:00etan, Usabalgo goiko kantuan izango da. Tolosa-Irungo.

Futbola

- Usabalgo futbol zelaian, 09:30ean, infantilak: Tolosa CF-Ordizia.
- Usabalgo futbol zelaian, 11:00etan, neska kadeteak futbol zortzian: Tolosa CF-Zarautz.
- Usabalgo futbol zelaian, 15:30ean, lurraldekako lehendabiziko mailan: Amaro-Hernani.
- Usabalgo futbol zelaian, 17:00etan, emakume seniorrak: Tolosa CF-Ordizia.

Goma jartzen hasita, gutxi falta da presa puzgarriko lanak amaitzeko

Tolosa » Atzo goizean hasi ziren presako goma jartzen; sistema berezi bat duenez, ur asko dagoenean hustu egingo da.

ERREDAKZIOA

Ikusmin handia ari dira sortzen Oria ibaiko presa puzgarriaren lanak. Atzo goizean jende ugari hurbildu zen Nafarroako zubiaren ingurura, izan ere, presako goma jartzen hasi ziren garai horretan.

Uda aldera hasi zituzten lanak, eta oraingoa pauso handi bat da. Atzo gomaren egitura hasi ziren jartzen, eta gutxi gorabehera, astelehenerako prest izatea espero dute. Horretarako, asteburu guztian hor ariko dira lanean. Oscar Renedo kiroletako zinegotziaren hitzetan, «obra guztiko une garrantzitsuetako bat da hau, izan ere, lan handia suposatzen du goma jartzeak, delikatuak baita. Gainera, une honetan ezin da buszorian, eta iragarpenek euria eman dute astebururako».

Metro eta 77 zentimetro neurtziko ditu presa puzgarri berriak. Gainera, puzgarria izatean, honek duen sistema berezia dela eta, ur asko dagoela somatzean hustu



Atzo hasi ziren jartzen presako goma eta asteburuan lanean ariko dira. E. E.

egingo da, eta emaria jaistean, puztu.

Goma jarri ostean, ibaiko urak eusteko eginda dagoen pareta eta kanalak botako dituzte, ibaiaren jarioa, normaltasunez hasi dadin bere bidea egiten.

1.494.124 euroko aurrekontua du proiektu honek eta Udalekoek argi dute egungo egoerak asko egingo duela hobera. Presak bierati, eta iragarpenek euria eman dute astebururako. Honek duen sistema berezia dela eta, ur asko dagoela somatzean hustu



Ikusmin handia sortu dute obrek. E. E.

L Laburrak

Kaxkagor elkartearekin puenting egiteko aukera

ASTEASU ● Gazteek puenting egiteko aukera izango dute hilaren 18an Azkoitian. Jauzia egin nahi duen orok Kaxkagor elkartearekin jarri beharko du harremanetan izena eman eta beharrezko informazio guztia jasotzeko. Urriaren 13a baino lehen 25euro ordaindu beharko dira (garraioa barne) eta bere kabuz doanak 20. Informazioa eta izen-emateak 696876176 eta 677488910 telefonoetan, edota, kaxkagor@hotmail.com helbidera mezua bidaliaz egin daitezke.

Araba aldera mendi irteera antolatu du Alpino Uzturrek

TOLOSA ● Alpino Uzturre elkarteak hilaren 18rako mendi irteera bat antolatu du. Txangoa Apellanzen hasi eta Monasteriogurenen bukatuko da. San Cristobal (1.057 metro), San Justi (1.028 metro), Kapildui (1.177 metro) eta Pagan (1.029 metro) mendiak igoko dituzte mendizaleek. Autobusaren irteera Santa Klaratik izango da, 07:30 inguruan. Bazkideek 11 euro ordaindu beharko dute txangoagatik, eta gainontzekoek 13. Izen emateak elkartearen bertan egin daitezke edo 943 65 27 89 telefono zenbakira deituta edo alpinouzturre@hotmail.com-era idatzita.

**90 URTE BERRITZEN.
90 EGUN PREZIO HISTORIKOEN.**

APROBETXATU EZAZU UNE HISTORIKO HAU 2000E PLANAREKIN

SEGURTASUN OSOKO PLANA:

Artirako orotarako aseguru zura Citroen berria, errekaratu eta interesik gabeko eta langabezi estaldura opari

GOZATU BAITA ERE C4, C4 PICASSO ETA C5 MILLENNIUM EREDUEN SERIE BEREZIAN. MYWAY NABIGATZAILEAREKIN.

CITROËN preferre TOTAL

CITROËN C3 **7.300€**tik CITROËN C4 HDi **11.600€**tik CITROËN XSARA PICASSO HDi **12.800€**tik

www.citroen.es

ITROVI, S.A. KONZESIONARIO OFIZIALA CITROËN. INDUSTRIALGUNEA Z/G. • TEL.: 943 65 18 42. ANOETA / TOLOSA

Elorri frontoi berritua erabilgarria izango da hil honen bukaerako

Alegia » Zorua konpontzen ari dira egunotan; azaroaren hasieran inaugurazio ekitaldia egin nahi dute.

IMANOL GARCIA

Alegiako Elorri frontoia berritzearen azken lanak amaitzen ari dira egunotan. Datorren astearen bukaerako amaituko direla espero dute eta hil honen bukaerako frontoia erabili ahaliko da. Lanak lehenago amaitzea espero zuten, baina zorua erekin arazoak izan direnez, aurreikusitakoa baino beranduago amaituko da.

Espainiako Gobernuak udalei emandako diru laguntzarekin frontoia eta gimnasioaren teilatua guztiz berritu da eta horrez gain hainbat konponketa eta aldaketa egin dira Udalaren kontura, aurrekontuetan horretarako zegoen diruaz baliatuta. Teilatua egitura berria egurrezkoa da eta ez burnizkoa, aurreko teilatua bezala Hura erdoilduta zegoen eta beste materialak nahiko ustelduta zuden.

Udalak frontoi berrituaren inaugurazioa egiteko asmoa du. Oraindik data ez dago guztiz zehaztuta, baina azaroaren hasieran izango da.

Zorua konpontzen

Bi aste hauetan zorua konpontzen ari dira. Izan ere, teilatua egiteko erabili ziren makinak zorua hondatu dute eta horregatik ari dira konponketa lanetan.

Teilatua gain hainbat lan egin dira. Esaterako, ezker horma berdez margotu da eta frontoia kanpo gelditzen diren hormak urdinez margotu dira. Harmailak ere margotu dituzte.

Aldaketa bat ere izan da frontoi-



Elorri frontoiko berritze lan ia guztiak amaituta daude. I. GARCIA



Egunotan zorua konpontzeko erabiltzen ari diren makina. I. GARCIA

tik kanpora zuzenean ateratzeko zegoen atearen inguruan. Aurreko atea ezeztatu dute, larrialdietarako bakarrik egongo da zabalik, eta txikiago bat ireki dute ondoan. Ate handitik hautsa asko sartzen omen zen eta frontoia zikintzen zela azaldu dute Udaletik.

Frontoia argiztapena ere berritu dute. Frontisaren inguruko koltxoiari dagokionez, Kutzaren laguntzaz jarri da eta beltz kolorekoa izango da. Bestalde, behin zorua konponduta dagoenean, lurrak margotuko dute, bai areto futelean, bai eskubaloian eta bai saskibaloian aritzeko.

Laburrak

Udalak autobusa antolatu du Nafarroa Oinezarako

AMEZKETA • Udalak Nafarroa Oinezara joateko autobusa jarriko du. Hilaren 18an izango da eta Etxarri Aranatzeko erabilgarria. Hilaren 14a izango da horretarako azken eguna. Langileek sei euro ordaindu behako dute eta ikasleek eta langabetuek lau euro. Udalak jakinarazi du ere jende nahiko ez bada biltzen, ez dela autobusa izango eta hori gertatzen bada aurretik jakinaraziko duela.

Fischer zirkuaren emanaldia gaur eta bihar

AMEZKETA • Fischer zirkuak bi emanaldi emango ditu asteburuan Ametzetan. Emanaldiak plazan izango dira eta bai gaur eta bai bihar 18:00etan hasiko dira. Pailazoak, malabaristak, animaliak eta beste ikuskizun gehiago izango direla diote Fischer zirkuak.

Kantabrian dute partida bihar Ibarra FSkoek

IBARRA • Ibarra FS taldearen hurrengo partida Kantabrian (Espainia) jokatu beharko dute. Hiru eguneko asteburuaren erdian jokatuko dute partida, hau da, bihar, 12:00etan. Corrales de Buelna herrian jokatuko dute, aurreko mailaz igo den talde baten aurka. Egun guztirako bidaia izango dute, beraz, Ibarra FSkoek.

San Bartolome festen balantzea egiteko bilera

IBARRA • Udal Kultura eta Gazteria Sailak, abuztuaren ospatu ziren San Bartolome jaien balantzea egin asmoz, Festa Batzordearen bilkura deialdia egin du datorren asteazkenearako, hilak 14, 20:00etan. Bileran udal batzar aretoan egingo dute.



saridunak



sarrerak

• Juan Luis Alkorta Abarrategi

LAGUN ARO GBC Suzuki Manresa

saskibaloia partida

Urriak 11 • Igandea • 19:00etan Donostiako Ilunben

sarrerak HITZAKO bulegoan

- Karmen Iraeta Arsuaga
- Pedro Mari Olano Lizartza
- Miren Itxaurrondo Arraras

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren baitan ospatuko den **bertso saiorako**



Urriak 10 • Larunbata • 17:30ean • Leitzako Udal Kiroldegian

sarrerak leihatilan igandean bertan izango dituzte

Urteurrena

I. urteurrena

MILAGROS URRESTILLA GARIN

2008ko urriaren Sean hil zen Azpeitian, 76 urte zituela

Beti gure artean izango zaitugu

Meza, bihar, IGANDEA, 12:30ean, AZPEITIKO SOREASUKO SEBASTIAN DONEAREN Parrokian izango da.



AZPEITIA
2009ko urriaren 10a

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

KONDEKO ALDAPA, 5 • 20400 TOLOSA
TELEFONO: 943 67 00 40 FAXI: 943 670719
WWW.FUNERARIASVASCONGADA.COM

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Ezker abertzaleak herrian TAO sistema jartzeko erabakia gaitzetsi du

Ibarra » Sistema honen inguruko hausnarketa bultzatzeko herritarrek hilaren 15eko eztabaidara gonbidatzen ditu.

ERREDAKZIOA

Ibarrako ezker abertzaleak uztailearen 28an egindako osoko bilkuran herriko zenbait puntutan TAO sistema jartzeko hartutako erabakia gaitzetsi du.

Ezker abertzaleak argi du «Ibarrak aparkaleku eta trafiko arazo handia» duela, baina bere ustez «irtenbidea bilatzen hasteko lehenik eta behin arazoaren jatorria bilatzea ezinbestekoa» da.

«Behin azterketa eskuartean arazoari aurre egiteko bide desberdinak aurkitu eta bizilagun, merkatar, ostalari eta abarrekin bilduz, eztabaida sustatu eta herri-



Ezker abertzaleko bi kidek eskaini zuten prentsaurrekoa. E. EZEIZA

tarroi kalte gutxien egingo digun aukera hartu beharko dute», zehaztu du. TAO sistemak «Ibarrako leku bat deskonjestionatu dezake,

baina beste lekuak autoz betetzea dakar nahitaez. Azkenean TAOa herri osoan jarri beharko ote dute?», esan dute. Era berean,

merkatariegan izango duen eraginaren beldur ere bada ezker abertzalea.

«Bizilagunoi zaborren tasak %20 igotzen dizkiguten bitartean (euren soldatak mantentzeko?), TAO sistemaren kudeaketa hutsak 7.300 euroko kostua izango du hilabetean, 87.600 urtean», nabarmendu du.

Mugikortasun Iraunkorren Plana

Ezker abertzaleak hilaren 5ean aurkeztutako Mugikortasun Iraunkorren Planaren lehen zirraborroa ere ekarri du gogora.

Bitaka enpresak egindako lanak «mugikortasun arazoari hainbat irtenbide» proposatzen dituela ere esan du, baina «TAOari buruz hitzik ez» duela egiten ere zehaztu du. «Hau ez da serioa: mugikortasunaren inguruko emaitza izan aurretik erabakizuen Udalak TAO

sistema ezartzea, ez eztabaidarik, ez parte-hartzerik gabe. Ibarrako Udalak hain gustoko duen *kazikismoa* erabili zuen berriz ere: beraiek boterea, beraiek erabakialak», gaineratu du herriko ezker abertzaleak.

TAO sistemaren kudeaketa, gainera, azpikontrata bidez egingo dutela ere salatu du, «ezin besterik espero», argitu dute.

«Ur zerbitzua, udal kirolegia, udal instalazioetak garbiketa zerbitzua... azpikontratan bidez kudeatzeari ekin dieten berberak dira. Berriz ere herritarrentzat kostu handiagoa suposatuz lanpostu duinak ekidin eta lanpostu prekarioak sortzera joko du Udal honek», nabarmendu du.

Proposamenak egiteko

Aipatu guztiarengatik TAO sistemaren inguruko eztabaida sustatu nahi du ezker abertzaleak eta «hainbat proposamen» ere egin nahi ditu.

Horregatik TAO sistemaren inguruko eztabaida batean partehartzeko gonbita luzatzen diete herritar guztiei. Eztabaida hilaren 15ean burutuko dute.

Argazki Rallya asteburu honetan

Berastegi » Atzo 20:00etan hasi zen urteroko argazki lehiaketa; bi txapelketa egingo dituzte aurtengoan.

ERREDAKZIOA

Berastegiko Kultura Batzordeak atzo 20:00etan eman zion hasiera urteroko Argazki Rallyari. Aurtengoan bi txapelketa desberdin egingo dituzte: bata argazki kamera analogikoarekin eta argazki kamera digitalarekin, bestea. Argazki

txapelketa astelehenean bukatuko da, 20:00etan herriko plazan.

Hiru egun hauetan zehar antolatzaileek zehaztutako gaiaren inguruko argazkiak atera beharko dituzte parte hartzaileek, baina guztiak Berastegiko mugen barruan atera behar dituzte.

Kamera analogikoarekin aritzen direnek hiru argazki aukeratu beharko dituzte eta digitalarekin aritzen direnek, aldi, antolatzaileek banatutako CDan 15 argazki sartu beharko dituzte eta ondoren, txapelketarako erabili nahi dituzten 3 aukeratu.

Argazki digitalak Udalaren webgunean ikusi ahal izango dira eta jendeak ere bozkatu ahal izango du hilaren 15etik 25era. Epaimahaia, hala ere, Andoingo zine eta bideo eskola izango da. Irabazlea azaroaren 15eko Azoka Egunean emango dute ezagutzera.

Udal-tasak bere horretan uztea erabaki du Udalak

Ibarra » Igoko duten tasa bakarri hiri-hondakin solidoen bilketarena izango da; familiako euro bat igoko dute hilabetero.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalak udal-tasa guztiak bere horretan uztea erabaki du, hondakin bilketa zergapetzen duena izan ezik. Azken hau %20 igoko dute. «Tolosaldeko Mankomunitateak eskaintzen duen zerbitzu honek sortzen duen defizita zuzendu nahi dute Udal ordezkariek, inguruko beste udalerritariek, inguruko beste udalerritariek, inguruko beste udalerritariek gertatu den bezala», argitu dute.

Horiek horrela, Ibarrako familia bakoitzak 94,20 euro ordaindu beharko ditu urtean hiri-hondakin solidoen bilketarako, hau da, aurreko urtearekin alderatuz, euro

bat gehiago ordaindu beharko dute hilabetean.

Bilduko den diruarekin Udalak «zerbitzu honek duen defizit handiari eta Sasietako Mankomunitateak zaborra bere hondakindegira eramateagatik planteatzen duen igoera garrantzitsuari» aurre egin nahi dio.

Udalak, era berean, azken urteetan hondakin bilketa bideratutako aurrekontua «modu nabarmen batean handituz» joan dela ere gogoratu du.

Krisi egoera dela-eta

Gainerako tasei dagokionez, ibarrek orain arteko kopuru berdina ordainduko dute.

«Neurri honekin herritarrei tasa-karga handiagoa ekidin nahi zaie gaur egun bizi den krisi egoera kontutan hartuz», argitu dute udal ordezkariek.

Elduaingo Kontzeju taberna hartzeko eskaera epea

ERREDAKZIOA

Elduaingo Udalak esan duenez astelehenean hilaren 26a bitarte, biak barne, egin daiteke udallexe-an dagoen Kontzeju taberna hartzeko eskaera. Lehiaketa ireki bidez egingo dute aukeraketa eta urte beteko lizentzia eskaintzen dute, nahiz eta lau urteko luzapena ere aurreikusten duten. Hileko kannon 186 eurokoa izango da.

Asteartean hasiko dituzte San Bartolome parkeko eraberritze lanak

ERREDAKZIOA

Ibarrako San Bartolome plazako parkea itxita dago atzotik. Udalak «udalerriko parke publikoaren sarea indartu» nahi du eta beraz herriko hamar parkeetan eraberritze lanak egingo dituela esan du.

Lehen parkea San Bartolomekoa izango da eta obrak asteartean hasiko dituzte.

Eraberritze lanak 58.620 euroko aurrekontua izango du eta altzari guztien berritzea aurreikus-ten du.

Tolosako Udala

IRAGARKIA

Zergaduneri eta gainerako interesatuei jakinarazte zae 2009ko Jarraiera Ekonomikoen gaineko Zergaren borondatezko epealdiko kobrantza kanpaina 2009ko urriaren 1etik azaroaren 10era egingo dela, biak barne. 2009ko irailaren 10ean baino lehen banku edo Kutxan helbideratutako agiriak, zergadunak esandako kontuan sartuz kobratuko dira zuzenean, ordaintzeko borondatezko epea amaitzen den egunean. Helbideratu gabeko ordainagiriak zergadunak adierazitako zerga helbidera bidalki dira urrian zehar. Etxean jasotako errezeptak ordaintzeko jo Kutxa, Euskadiko Kutxa, Banco Gupuzoopno, BBVA, La Caixa eta Nafarroako Rural Kutxara, Erreziboa erakustearrekin nahikoa da. Hauex dakarkizuet gogora, ordaintzera joaterakoan, hemendik aurrerako errezeptak banku edo aurrezki kutxa horietan helbideratuzko aukera duzuela. Urriak 20rako zergadunak ez badu jaso bere helbidean agiria, Tolosako Udalak Zerga Bilketa bulegoan eska dezake, Goian esandako epe hori amaitu ondoren, premia bidean ekingo diogu, eta ordaindu ez diren errezeptak honiek errekargio izango dute, atzerapenagatik sortutako interesak eta kostuak ere zergaduneri kobratuko zaizkie.

Tolosa, 2009ko irailak 25an
ALKATEA

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

G Gutunak

Gaur, bihar gogoratuko dugun eguna Ibarra

Zein erraza den... zer esatan ari zaren jakin gabe... hitz egitea.

Gauzak zerutik erori zaizkigula uste dugu: bapatean, izerdirik bota gabe, lanik egin gabe, borrokatu gabe... eta noski, garrantzitsuenak: merezi ditudalako, bidean topo egin dut eta nire da. Arazoren bat?

Euskara... Euskal Herria... Termino santuak bilakatu nahi dituzte: hutsak; esanahi gabeak; *apostolitikoak*.

Eneko Aritzaren Lagunok euskaraz hitz egiten dugu eta Euskal Herrian grabatzen dugu: Maulera joan eta euskaraz egin genuen jai, Diman berdin, Ozaetan, Hendaiain, Iruñean...

Kanpotik begiratuta euskara eta Euskal Herria lotzen dituen elkarretea gara. Baina hori bakarrik? Ibilbide geldo honetan hitz horien esanahiak osatuz joan gara. Bakotzaren atzean zer egon zen eta zer dagoen ikasteko irrikaz mugitu gara hara eta hona. Ez baitugu uste zerutik basterik gabe eroritako ter-

minoak direnik. Aldi berean, esanahi bila lan egin dugulako, arto azaldu dugu nongoak ginen eta zer egiten genuen.

Ibarra Euskal Herria Eguna ospatuko da gaur, Lizarrako anai arrebekin senidetzeko. Zortea izan dugu eta parte hartzera gonbidatu gaituzte. Eta noski, tontoak ez garenez, ezin ukatu horrelako aukera bat.

Ekimen honi esker, Lizarrako AEKrekin harremanetan jarriko gara: nafar euskaldun berriek gure pelikula irentsi beharko dituzte; *Sua*-ren estreinaldira joan beharko dute; Eneko Aritzaren basurdearen hitz jariora sufritu; gure herria ezagutu; gurekin afaldu...

Guk berriz, euskarazko euren lehen urratsak ezagutuko ditugu; herri berri batean lagunak egingo ditugu; parranda bota ondoren lo egiteko leku gehiago edukiko ditugu...

Baina Euskal Herria Egunean, gauza guztien gainetik, euskara eta Euskal Herria esanahiez betetzen jarraituko dugu.

Eneko Aritzaren Lagunak. Ibarra.

Leitzan eta Anoetan Gazte Independentisten ospakizunak

Gizartea » Nazio mailako Gazte Eguna Leitzan ospatuko dute hilaren 17an. Anoetan, hilaren 24an, Independentzia Eguna.

Villabonako Iratzarren eta Tolosako Denaken aurkitzen dira salgai. Txartelak erosteko azken eguna, 15 eurotan, urriaren 14a izango da. «Egunean bertan ez da txartel salduko».

Urriaren 24an Anoetan

Nazio mailako ospakizunaz gain, Tolosaldeko Gazte Independentistek jaia Anoetan antolatuko dute urriaren 24ean: Independentzia Eguna.

Kasu honetan bazkarirako txartelak 10 eurotan jarri dituzte salgai ondorengo tabernetan: Villabonako Iratzarren, Tolosako Rakun, Ibarako Atarin eta Anoetako Itzulin.

ERREDAKZIOA

Euskal Herriko Gazte Independentistek nazio mailako Gazte Eguna antolatuko dute hilaren 17rako Leitzan. Bertan jai giroan ospatuko dute. Jarraian sorreraren 30. urteurrena.

Tolosaldetik autobusez Leitzara joan nahi dutenek zerrendak «ohiko tokietan» edukiko dituzte. Bazkariko txartelak eta sudaderak

Leitzan ez dute gaur Kantu Jirarik egingo

A. IMAZ

Aurrera Elkartean atzo biltzekoak ziren Kantu Jira egiteko. Hilabete honetan ordea, egun bat atzeratu zuten euskal abestien inguruko ekimena. Gauzak horrela, Kantu Jira gaur zen ospatzeko.

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren saioa ere gaur denez

Leitzan, «ekitaldiak ez nahasteagatik», antolatzaileek hilabete honetako Kantu Jira bertan behera uztea erabaki dute. Ondorioz, gaur ere ez dira euskal abestiak kantatzerajoango Aurrera Elkartera.

Aurrera begira zer egingo duten oraindik ez dagoela argi esan dute ekimenaren sustatzaileek.



Leitzako Jeiki abesbatzak emanaldia eskainiko du biharko Jaialdiaren baitan. JAIONE ASTIBIA

Herriko historia eta pasarteak biharko Jaialdian

Leitza » Musika-Kantu-Dantza Jaialdia bihar herriko plazan 20:00etatik aurrera: sarrera debalde eta «eguraldia lagun».

herriko plazan «eguraldia lagun».

Leitzako zinegotziaren esanetan ikuskizun osoa izango da biharko: «Herriko txistulariak, Lesakako Banda, Jeiki abesbatza, Aurrerako dantzariak eta bertso eskolako bertsolariak egongo dira.

gidoi bat atera du eta horri jarraituz dantza, musika eta ikuskizun desberdinak antzeztu edo plaza-ratuko dituzte bihar. Talde desberdinak elkarlanean arituko dira, inoiz ez da jakingo zer gertatuko den jaialdian. Batzuetan bazter batetik dantzariren bat azalduko da, edo beste nonbaitetik bertsolariaren bat etab. Ikuskizun osoa izanen da, hasi eta bukatu. Ordu bete edo ordu eta erdi iraungo du Jaialdiak».

ASIER IMAZ

Herri eragile desberdinek Jaialdia antolatu dute Leitzan. Ikuskizuna bihar izango da herriko plazan, 20:00etatik aurrera. Bertan dantzariak, abesbatzako kideak, txistulariak, bertsolariak... hartuko dute parte. Sarrera dohainik izango da.

Herritarrek eta inguruko bizilagunak gonbidatu dituzte ikuskizunaren sustatzaileak

Jaialdia 20:00etan hasiko da herriko plazan eta 21:30erako amaiturik egongo da

Nolako Jaialdia?

Musika-Kantu-Dantza Jaialdia elkarlanean antolatu dute Udalak, Aurrera KEko dantzariak, Leitzako Jeiki abesbatzak eta Lesakako Bandak.

Jon Arangoa zinegotziaren esanetan, «duela hilabete batzuk, Leitzako pesten aurretik, lantalde bat sortu zen ideia bat garatzeko asmoz. Bertan eragile desberdinetako kideak elkartu ziren, eta horren emaitza biharko Jaialdia izanen da».

Ikuskizuna 20:00etan hasiko da

Baina bakoitzak ez du berea bakarrik egingo, gidoi baten inguruan arituko baitira elkarlanean. Ildo nagusi hori, herriko pestetako programari argitaratzen den aldizkariatik ateratakoa izango da. Hau da, jaietako egitaraua Plazaola aldizkarian banatu ohi da Leitzan, duela urte askotatik hona. Azken urtetako aldizkariak biltzen aritu da Unai Zabaleta, hauetatik informazioa, datuak etabar bilduz. Hortik

Atsedean hartzeko astirik gabe

Azken asteburuetan beti dago zerbeit Leitzan. Jon Arangoaren esanetan hori eskertzekoa da: «Egia esan saiakera horretan gabiltza lanean: jendea animatzen. Batzuetan asmatzen da eta bestetan ez, baina diru aldetik oso oparo ez gabiltzala ikusita, jendea lanerako gogoz dabilela ikustea benetan eskertzekoa da. Hori, nire ustez, herri honek duen ezaugarrietako bat da eta segi dezala horrela denbora askoan».

Leitzako zinegotziak herritar guztiez gain, inguruko bizilagunak gonbidatu ditu bihar herriko plazan 20:00etan egongo den Jaialdira.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Sutarako egurra.** Sutarako egurra salgai. 20, 30 eta 40 zentimetrotara moztua. Etxera eramaten dugu. Harremanetan jartzeko deitu 615 75 57 62ra.

LANA

■ **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. Harremanetarako telefono zenbakiak: 695 70 82 71 (Belen) eta 638 94 46 04 (Gurutze).

EROSTEKO

■ **Traspalet karretila.** Bigarren eskuko traspalet karretila bat erosiko nuke. Harremanetako deitu 648 00 47 98 telefono zenbakira.

AURKITU TAKOAK

■ **Ordularia.** Joan zen urriaren 2an, ostiralean, ordulari bat aurkitu zen Irurako San Miguel jaietan. Harremanetan jartzeko deitu ondorengo telefono zenbaki honetara: 619 57 61 25era.



15°
8°

GOIZA EGUZKIA
ARRATS. EGUZKIA
BEROENA 18°
HOTZENA 8°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaileko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Tolosa.** 1969an jaiotako gizon eta emakumeentzako bazkaria antolatu dute azaroaren 14rako Fronto jatetxean. Izen-ematea, 55 euro ingresatuz La Caixa-ko 2100 1758 64 0100260547 kontu korrontean.
- **Tolosa.** San Esteban auzoko Kultur Astea: 09:30ean auzotik mendi ibilaldia haur eta helduentzat.
- **Villabona.** Remi Ayestaran zinegotzi hil berriari omenaldia Errebotte plazan 19:00etan: bertsolariak, dantzariak, musika, herriko dantborrada, Lain taldea, Donostiako Zarpantzarrik,...

Antzerkia

- **Lekua.** Kultura Gorraren Astea: 17:30ean El Grito Madrilo antzerki taldeak *Pequeños crimenes conjugales* lana aurkeztuko du Leidor aretoan eta 19:00etan Murtziako Triscento antzerki taldeak *Un trozo de ti* antzezlan eskainiko du Leidorren.

Jaiak

- **Tolosa.** 12:00etan patata tortila txapelketa eta laguntzeko txakolina, 16:00etan mus txapelketa, 16:30ean umejokoak, 17:30ean umeentzako merienda, 18:00etan buruhandiak, 18:30ean grafiteroak, 23:00etan Disko Festa DJon Urbietarekin, 02:00etan Puntzaka DJ txosnan, musika berria eskainiz, ondoren txokolata egingo dute.
- **Ibarra.** Euskal Herria eguna: Ibarra-Lizarrak: 10:00etan Lizarrakoei ongi etorria mondeju eta pipar janzan, 10:30ean umejokoak, 11:00etan kalejira dultzainero, trikitilari eta bertsolariak lagundurik, 13:30ean senidetze ekitaldia, 14:00etan kantu bazkaria, 16:00etan gaztelu puzgarria, 16:30ean Mus Txapelketa, 18:00etan herri arteko jokoak, 19:30ean senidetzearen murala aurkeztuko da, 21:00etan txotx eta ogitartekoa, 21:30ean jaia Gatzetxean: Zaplasteko, Feos pero majos eta Unsain anaiak taldeekin, ondoren herriko DJak.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.
- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunkizunik.



1,3 kiloko onddo ikusgarria

ALTZO • Onddo ikusgarria topatu du Jose Luis Irizar altzotarrak Altzo eta Bedaio arteko mendietan. 1,3 kilo eman zituen pisuan, orain arte topatu duen handiena. Familiartearen jango dute onddoa. HITZA

A Agurrak



Urte askoan!

Pilar. Gaur 90 urte. Zorionak seme-alaba, biloba, birloba eta familia guztiaren partetik. Ondo pasa! Muxu bat!

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

Zuhazki-rekin lor zenezake 2000 € arteko plus-diru laguntza lehoiak berritzeagatik U_s 2,4 W/ m²K

CE **K21**

Tel.: 943 67 36 11
www.zuhazki.com

P Publikerreportajea: Zuhazki, SA



2000 euroko laguntza lor daiteke lehoiak berritzeagatik

JOSE RAMON ESNAOLA » Zuhazkiko zuzendaria

Leaburu » Zuhazkik egiten dituen egurrezko leihoen transmitantzia termikoa 2.4 W/m²K baino txikiagoa da. Honi esker EVEk Plus diru laguntza eskaintzen du.

Zuhazkik egurrezko leihoak, kontraleihoak, baserri giroko atek, eskaileak, fabrikatzen dituen enpresa da. Leaburu-Txaraman kokaturik dago, 3.500 metro koadroko pabilioiak ditu eta 40 langilek egiten dute lan bertan. **Zergatik erabaki duzu publizitate hau egitea?**

Egurrezko leihoak merkatua galtzen joan dira, ez dugulako jakin behar den bezala komertzial lana egiten eta jendeari ahaztu egin zaio egurrak dituen ezaugarri onak. EVEk bi diru laguntza ateratu ditu: %22ko leihoak berritzeagatik eta %30eko gainera leihoak CE markatua eta U_s < 2.4 W/m²K badute. **Zuhazkik lehoak CE markatua eta transmitantzia termikoa 2.4 W/m²K baino gutxiago ematen dute.**

Zergatik betetzen duzue U balore hori?

Egurra dagoen isolatzaile termiko onenari riko delako. Egurraren beste ezaugarri batzuk hauek dira: kondentsazioa ez du uzten sortzen, suarekiko jasankorra; erresistentzia mekanikoa handia, elektrikoki neutroa, ... Hor dago adibide bezala Veneziako herria egurrezko zutabeen gainean.

Baina egurrak mugimendua du klima aldaketarekiko, ezta?

Gauza asko ikasi ditugu eta badakigu leihoak egiteko egonkortasuna duten egurrak erabili behar direla eta gainera egur lehorra, bestela arazoak ematen ditu. Horregatik Zuhazkik leihoak egiteko egur laminatua erabiltzen du ehuneko ehunetan ziurtasuna ematen duelako.

Zer ezaugarri ditu zuen leihoak?

Egiten ditugun leihoetan 22-28mmko lodiera duen edozein kristal sar daiteke, kristal kamaradunak, segurtasunekoak, soina isolatzen dutenak, beharrezkoak. Honez gain bi gormaldi daramatza eta honek itxidura askoz hermetikoagoa egiten du.

Eta zer diozu mantenimenduari buruz?

5 urteko bermea ematen ari gara eta 10 urteko bermea emateko bidean gaude. Hemen ere merkatuak asko ikasi du eta gaur egun ematen den tratamendua egurraren poroetan barrena sartzen da eta ez da gainazaleko esmalte bat bezala. Leihoak garbitu behar direnean olio bereziak bustitako trapu bat pasa behar da, hau da, trapu busti bat pasatzea bezala. Eta handik 5 urtera edo guhegiago, batez ere eguzkiak asko jotzen duen leihoetan, kolore galtzen duenean, tratamendua kendu gabe berriro beste bukerako tratamendu bat ematea izango litzateke. Beraz, geroz eta errazagoa da egurraren mantenimendua.